

TKgune Kudeaketa Aplikazioa - Tutoriala

<https://kudeaketa.tkgune.eus/>

AURKIBIDEA

1. ENPRESAK	2
2. LANKIDETZA PROIEKTUAK	3
2.1. Bisitaren aurretik	4
2.2. Bisitaren ondoren	5
2.3. Aurrekontua	6
2.4. Garapena	7
2.5. Transferentzia	8
3. ESTATISTIKA	9
4. ERABILTZAILEAK	10
5. IKASTETXEAK ELKARLANEAN	11

1. ENPRESAK

TKgune sareko enpresen datuak ikusi eta editatu (IFZ ezin da editatu) eta enpresa berriak sortu.

Kontaktuak

TKgune sareko kontaktuen datuak ikusi eta editatu (posta-e helbidea ezin da editatu). Aldiz, kontaktu berria, lankidetzaren proiektuaren barnean sortzen da, “Bisitaren aurretik” atalean, “Kontaktu berria erantsi” botoian sakatu eta kontaktu berriaren datuak gorde.

Enpresa berria erantsi: Enpresa berriaren datuak bete eta gorde.

CSV fitxategia jaitsi: Gurekin lankidetzan aritutako enpresak edo sareko enpresa guztien datuak jaitsi.

2. LANKIDETZA PROIEKTUAK

Gure ikastetxeko lankidetza proiektuak ikusi, editatu eta berriak sortu.

Jardueren ziurtagiria eratu

Epealdi jakin batean jarduerak burutu direla egiaztatzeko ikastetxearen ziurtagiria automatikoki sortu. Printzipioz, urtean behin, ikastetxeko ordezkariak sinatuta bidaltzeko eskatuko da, urte naturaleko datuak eguneratzearekin batera.

Lankidetza berria erantsi: Lankidetza proiektu berriaren datuak betetzen hasi eta gorde.

CSV fitxategia jaitsi: Lankidetza proiektuen datuak jaitsi.

Lankidetza proiektu baten atalak eta egoerak:

Atala	Egoera
Bisitaren aurretik	Bisita planifikatua
Bisitaren ondoren	Bisita burutua
Aurrekontua	Aurrekontua aurkeztua
Garapena	Garapenean
	Garapena burutua
Transferentzia	Garapena eta Transferentzia burutuak

2.1. Bisitaren aurretik

Bisitatuko dugun enpresa, bisita data, enpresako ordezkaria eta beste datu batzuk gordetzen dira.

“Bisitaren aurretik” atala osatutzat emateko, eremu jakin batzuk bete behar dira. Eremu hauek bete eta gordeta:

- Proiektua “Bisita planifikatua” egoeran egongo da.
- “Bisitaren ondorioak jaso” botoia aktibatuko da.

Aldiz, eremu jakin guztiak bete gabe:

- Betetako eremuak bai gordeko dira.
- Proiektua “Bisita planifikatua” egoeran egongo da.

Atala editatu: Atal honetako eremuak editatu eta gorde.

Bisitaren ondorioak jaso: Hurrengo ataleko eremuak editatu eta gorde.

2.2. Bisitaren ondoren

Enpresarekin izandako bileran hitz egindakoa, aurrekontu aukerarik suertatu al den ala ez eta beste datu batzuk gordetzen dira.

“Bisitaren ondoren” atala osatutzat emateko, eremu jakin batzuk bete behar dira. Eremu hauek bete eta gordeta:

- Proiektua “Bisita burutua” egoeran egongo da.
- Aurrekontu aukerarik? Bai > “Aurrekontua eratu” botoia aktibatuko da.
- Aurrekontu aukerarik? Ez > Proiektua automatikoki itxiko da.

Aldiz, eremu jakin guztiak bete gabe:

- Betetako eremuak bai gordeko dira.
- Proiektua “Bisita planifikatua” egoeran egongo da.

Atala editatu: Atal honetako eremuak editatu eta gorde.

Aurrekontua eratu: Hurrengo ataleko eremuak editatu eta gorde.

2.3. Aurrekontua

Aurrekontua eratzeko, proiektuaren deskribapena, atazak, datak, lan orduak, materialak eta beste datu batzuk gordetzen dira. Enpresak aurrekontua onartuz gero, aurrekontua sinatuta gordetzen da.

“Aurrekontua” atala osatutzat emateko, eremu jakin batzuk bete behar dira. Eremu hauek bete eta gordeta:

- Proiektua “Aurrekontua aurkeztua” egoeran egongo da.
- Aurrekontua onartua: Bai > “Garapenari ekin” botoia aktibatuko da.
- Aurrekontua onartua: Ez > Proiektua automatikoki itxiko da.

Aldiz, eremu jakin guztiak bete gabe:

- Betetako eremuak bai gordeko dira.
- Proiektua “Bisita burutua” egoeran egongo da.

Atala editatu: Atal honetako eremuak editatu eta gorde.

Aurrekontua ikusi eta jaitsi: Aurrekontua ikusi eta pdf dokumentua jaitsi.

Garapenari ekin: Hurrengo ataleko eremuak editatu eta gorde.

2.4. Garapena

Proiektuaren garapenari dagozkion datak, burutu den ala ez, burututako lanaren deskribapena, atazak, lan orduak, faktura zenbakia eta zenbatekoa, argazkiak eta beste datu batzuk gordetzen dira.

“Garapena” atala osatutzat emateko, eremu jakin batzuk bete behar dira. Eremu hauek bete eta gordeta:

- Proiektua “Garapena burutua” egoeran egongo da.
- “Transferentziari ekin” botoia aktibatuko da.

Aldiz, eremu jakin guztiak bete gabe:

- Betetako eremuak bai gordeko dira.
- Proiektua “Garapenean” egoeran egongo da.

Atala editatu: Atal honetako eremuak editatu eta gorde.

Laburpena ikusi eta jaitsi: Proiektuaren laburpena ikusi eta pdf dokumentua jaitsi.

Transferentziari ekin: Hurrengo ataleko eremuak editatu eta gorde.

2.5. Transferentzia

Proiektuan ikasitakoaren transferentziari dagozkion data, burutu den ala ez, norabidea, transferentziaren deskribapena eta beste datu batzuk gordetzen dira.

“Transferentzia” atala osatutzat emateko, eremu jakin batzuk bete behar dira. Eremu hauek bete eta gordeta:

- Proiektua “Garapena eta Transferentzia burutuak” egoeran egongo da.

Aldiz, eremu jakin guztiak bete gabe:

- Betetako eremuak bai gordeko dira.

- Proiektua “Garapena burutua” egoeran egongo da.

Atala editatu: Atal honetako eremuak editatu eta gorde.

3. ESTATISTIKA

Epealdi jakinetan gure ikastetxeko TKgune proiektuei dagozkien datu estatistikoak ikusi.

- Epeka: Datuak ikusi eta CSV fitxategia jaitsi.
- Proiektu sakonak (50 ordutik gorako lankidetza proiektuak): Datuak ikusi eta CSV fitxategia jaitsi.

Gure balorazioak

Enpresako garapen arduradunari inkesta bidali (Garapena ataletik), eta inkesta bete badu, ikastetxeak jasotako balorazioak ikusi.

4. ERABILTZAILEAK

Gure ikastetxeko erabiltzaileak (irakasleak) ikusi, editatu eta berriak sortu.

Erabiltzaile berria erantsi: Erabiltzaile (irakasle) berriaren datuak bete eta gorde.

5. IKASTETXEAK ELKARLANEAN

Soilik beste ikastetxe batekin elkarlanean egindako proiektuetan bete

Bi ikastetxe edo gehiagok elkarlanean garatutako proiektuari deritzo.

- Ikastetxe liderra. Kudeaketa aplikazioan “editorea” izango da. Ikastetxe parte-hartzaile guztien informazioa aplikazioan gordeko du.
- Ikastetxe laguntzailea/k. Kudeaketa aplikazioan “ikuslea” izango da. Informazioa ikastetxe liderrari bidaliko dio aplikazioan gorde dezan. Ikastetxe liderrak bidaliko dion esteka bidez proiektuaren informazioa ikusiko du, baina editatu ez.

Aurrekontua

Ikastetxe liderrak bere datuak eta ikastetxe laguntzailearenak gordeko ditu.

“Ikastetxeak elkarlanean” botoia sakatu, gero “Gehitu aurrekontuko lan-orduak” botoia sakatu, eta ikastetxe laguntzailea, aurreikusitako orduak eta orduko ordaina gordeko ditu.

Garapena

Ikastetxe liderrak bere datuak eta ikastetxe laguntzailearenak gordeko ditu.

“Ikastetxe laguntzaileak” azpiatalean, “Gehitu garapeneko lan-orduak” botoia sakatu, eta ikastetxe laguntzailea, erabilitako orduak eta fakturatutako orduak gordeko ditu.

Estatistika

- Ikastetxe liderra. Proiektua garatzen bada, 4 egoera kontabilizatuko zaizkio: Bisita burutua, Aurrekontua aurkeztua, Garapena burutua, eta Garapena eta transferentzia burutuak.
- Ikastetxe laguntzailea/k. Proiektua garatzen bada, 2 egoera kontabilizatuko zaizkio: Aurrekontua aurkeztua eta Garapena burutua.